

LAN-ESKAINZA:

DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLA KOOPERATIBA-ELKARTEAK

ZUZENDARI NAGUSIA BEHAR DU:

Ibaizabal Ikastola bigarren mailako kooperatiba bat gara, bost ikastolen elkarlanetik sortua. **Batxilergoa** eta **Lanbide Heziketa** eskaintzen ditugu, eta gure jardun hezitzailearen osagarri gisa, **Errota ostalaritza zerbitzua** (aterpetxea-ostatua) ere gure egituraren parte da.

Gaur egun, **Zuzendari Nagusia** behar dugu, **ikastolaren egitura osoaren zuzendaritza eta koordinazioa** bere gain hartuko duen pertsona. Bere zeregina izango da **Ibaizabal proiektuaren lidergoa** eta **garapen estrategikoa gidatzea**, ikuspegi kooperatibo eta berritzaile batetik.

LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK:

Zuzendari nagusiak ikastolaren planifikazio estrategikoa diseinatu eta gauzatu beharko du, proiektuaren nortasuna eta ikuspegia gidatuz. Bere gain izango du kudeaketa orokorra eta administrazio-ekonomikoaren zuzendaritza, baliabideen erabilera eraginkorra bermatuz. Era berean, lan-banaketaren antolaketa eta giza baliabideen zuzendaritza bere ardurapean egongo dira. Kanpo harremanak eta komunikazioa koordinatuko ditu, erakundearen irudi instituzionala indartzeko helburuarekin. Horrez gain, azpiegiturak eta inbertsio-proiektuak kudeatuko ditu, eta hezkuntza-prozesuen jarraipena eta ebaluazioa egingo du zuzendaritza-taldearekin elkarlanean.

PROFILA >

Formazioa eta esperientzia:

- Hemen adierazitako ikasketetakoren bat izatea: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza, Zuzenbidea + Lan Harremanak, Ekonomia edo baliokideak.
- Euskara: C1 maila
- Hiru edo lau urteko eskarmentua gutxienez ikastetxe, kooperatiba edo antzeko erakunde, elkarte edo enpresaren batean.

Gaitasunak:

- Lidergo gaitasuna eta ikuspegi estrategikoa.
- Taldearekin komunikatzeko eta koordinatzeko trebetasuna.
- Gatazkak kudeatzeko gaitasuna.
- Konpromisoa eta motibazioa.

Baloratuko dira:

- Irakasleen prestakuntzarako masterra.
- Ibaizabal Ikastolaren zein EHko ikastolen proiektuaren ezagutza, partaidetza edo esperientzia.
- Talde-lanerako trebetasunak edo formazioa.
- Herrigintza eta euskalgintzako proiektu, mugimendu edo erakundeetan esperientzia edo ezagutza.
- Lanpostuarekin eta bere funtzioekin lotutako IKT ezagutzak.
- Ingelesa B2 maila.

ESKAINTZEN DA >

- Lanaldi osoa.
- Kontratu mugagabea.
- Kooperatiba-izaera duten lan-ingurune partehartzailean ibilbide profesionala garatzeko aukera.
- Eragin sozial handiko proiektu baten lidergoa eramatea.

KURRIKULUMAK >

- Bidali zure CV-a eta motibazio-gutuna artezkaritza@ibaizabalikastola.eus -era eta **ZUZENDARIA** erreferentziarekin.
- Epea: 2025eko **AZAROAREN 23ra** arte.